

SARITUAK

- SAKANAKO KIROLARIRIK HOBERENA:
18 URTE BAINO GUTXIAGOKO GIZONA

MIKEL ZUFIAURRE ESTEVEZ

16 urte

Merituak: Urrezko domina Espainiako TREC txapelketan eta brontzea taldekako sailkapenean. Nahiz eta Mairu bere zaldia istripua izan, Europako TREC Hipika txapelketan brontzezko domina lortu zuen.

- SAKANAKO KIROLARIRIK HOBERENA:
18 URTE BAINO GUTXIAGOKO EMAKUMEA

IRATXE LAPUENTE PEREZ

17 urte

Merituak: Iruñea eta Gares arteko irristaketa maratoian lehen juniorra izan zen. Behobia-Donostian 3.a izan zen irristaketan.

- SAKANAKO KIROLARIRIK HOBERENA:
18-35 URTE BITARTEKO GIZONA

MARCOS BERAZA VITORIA

27 urte

Proposatua: **Irati Vergara Campo, Irune Vitoria, Maalen Beraza, Kontxi Lopez, Marina Herrero, Nerea Lapuente eta Nerea Llamasek.**

Merituak: Nafarroa mailan 10 urtez jarraian txapeldun gaur egun arte.

Estatu mailan bi urte jarraian (2022 eta 2023an) txapelduna izan da Espainiako Senior B mailako Enduro txapelketan.

Gainera, motorrean ibiltzeko haurren klub bat sortu du, berak dakien hori txikiei transmititu eta erakusteko.

- SAKANAKO KIROLARIRIK HOBERENA:
18-35 URTE BITARTEKO EMAKUMEA

MAITANE VILARIÑO MENDINUETA

21 urte

Merituak: Osasunako jokalaria eta euskal selekzioarekin jokatu du.

- SAKANAKO KIROLARIRIK HOBERENA:
35 URTE BAINO GEHIAGOKO GIZONA

JUAN LUIS MAIZA BEGIRISTAIN

58 urte

Merituak: 55-59 adin tarteko Espainiako Duatloi Txapelketa irabazi du.

Europako Txapelketan Europako txapelduna eta Ibizako Duatloi Mundialean estatuko lehena izan zen. Hau dena, lesio gogor bat gainditu ondoren egin du.

► SAKANAKO KIROLARIRIK HOBERENA:

35 URTE BAINO GEHIAGOKO EMAKUMEA

GRACIELA PRADO GARCIA

53 urte

Merituak: Polonian jokaturako Para Pole Sport kategorian munduko txapelduna izan da.

► SAKANAKO KIROL TALDERIK HOBERENA:

ISKIZA SAKANA TALDEKO OINARRIZKO GAZTE TALDEA

Proposatua: Altsasuko Udala

Merituak: 2023ko urrian **Nafarroako txapeldun** izan ziren, hirrugarren urtez (2021, 2022 eta 2023 urteetan Nafarroako txapeldun izan dira)

- 2022ko Espainiako txapelketan 56. postuan sailkatu ziren 130 talderen artean.

- 2023ko Espainiako Kopan 68 talderen artean **25. postua** lortu zuten.

- 2023ko Espainiako txapelketan **29. postua** lortu dute oinarrizko gazte mailan, 147 talderen artean.

- Espainiako eta Nafarroako txapelketez gain, Nafarroako, Euskadiko eta Aragoiko klubek antolatutako torneo ezberdinetan parte hartu dute 2022 eta 2023 urteetan zehar, Sakanako izena herrialde ezberdinetara eramanez.

► EUSKARA GEHIEN BULTZATU DUEN KIROL TALDEA:

CBASK ALTSASU SASKIBALOI KLUBA

Proposatua: Altsasuko Udala

Merituak: Euskararen alde ahalegin berezia egiten ari dira eta monitore gehienak euskaldunak dira.

► SAKANAKO KIROLARIRIK HOBERENAK:

AIPAMEN BEREZIA

JESUS MARI ARZA BERGERANDI

Merituak: Sakanako Mankomunitateari urtez urte emandako laguntzagatik, baita Iñigo Aritza eta Andra Mari ikastolei, Lakuntza, Etxarri Aranatz, Altsasu eta beste Sakanako hainbat herriri, eta hainbat eta hainbat aizkolariri ere.

► SAKANAKO KIROLARIRIK HOBERENAK:

AIPAMEN BEREZIA

IMANOL ERBITI OLLO

Merituak: 39 urterekin, profesionaletan bere 19. denboraldia osatu duenean, guztiak eskuadra berean, txirindularitza utziko duela erabaki du tropelean errespetatua eta mirestua den talde gizon fidel eta umilak. Frantziako hamahiru Tour, Espainiako hamabost Vuelta, Giro bat, 2016ko Rioko Olinpiar Jokoak, Munduko zortzi txapelketa eta Europako hirutan parte hartu du. Hiru garaipen lortu ditu: 2008an eta 2010ean Vueltan lortu zituenak, eta Errioxako Itzulian lortu zuena. Baina, agian, sari

garrantzitsuena, bere ibilbidean jaso duen miresmena eta egunotan jasotzen ari den aitortza amaigabea da.

Bere agurrak txirindularitza munduan mezu zaparrada sortu du. Txirindulari eta teknikari guztiek Imanol Erbitiren lana goraiatu dute eta "talde gizonaren adibide dela" nabarmendu dute.